



ataria

Geldirik ez egotekoa

Gizartea

*Bost gazte Alegiako Gaztetxearen
inguruko dokumentala grabatzen ari dira*

2018-12-07

971.zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus



iragarki
laburrak
.eus

iragarkilaburrak.eus

Bigarren eskuko bateria ederra

Artaldea salgai

**hemen
eta
online**

Gerturatu eta hamalau

Batzuoi ez digu aparteko aldaketarik eragin Euskaraldiak eguneroko ohituretan. Beste hamaika egunez, euskarazko egunkariak irakurtzen gosaldutako dugu. Euskaraz jaso eta erantzun ditugu mezuak. Euskaraz egin dugu lan. Euskaraz ikusi

dugu albistegia eta entzun dugu irrati.

Euskaraz egin diogu lehen hitza dendariari, bezeroari, senideari, lagunari, geure buruari... Euskaraz pentsatu dugu eta euskaraz egin dugu amets. Euskaraz eta euskarekin amesten dugunontzat, ordea, hamaika eguneko inflexio puntu izan dira.

Euskaraldiak norbera ispiluaren aurrean jarri du, nor bere eragiteko gaitasunean sinetsi dezan. Euskararen biziberritzea ez baitago soilik ohitura, estrategia eta ekimenen baitan. Jarrera da gakoa. Hamaika egunez, pin-a janzteagatik edozein arropa zultazeko prest egotetik harago, goizero-goizero begiratu diogu ispiluari, egunetik egunera tenteago, irribarretsua-

Hausnarketa ezkorrei astindu eder bat emateko balio izan du. Herritarren ahalduntzea, konfiantza eta konpromisoa izan ditu akuilu biraketa horrek

go; kokotsa altxatu eta gogotsu irten gara kalera. Eta kaleran, ikusi ditugu konplizitatezko keinuak, espero gabeko euskaltzaleak, euskarazko ahots berriak eta elkarren artean zerbait handia partekatzearen harrotasuna.

Etxeko ispiluan ez ezik, gizartearen miraileen ereteman dugu ariketa kolektibo honen efektua. Zuhaitzaren pean lau intxaur espero genituen, eta, gerturatu garenean, hamalau topatu ditugu. Euskaraldiaren onurak ezingo dira datu eta ehunekoetan soilik neurtu, ezinezkoa delako ekimenaren balio soziala zenbakietara eramatea. Aldiz, azken aldian jaso izan ditugun datu «kezkarri», eta hausnarketa ezkorrei astindu eder bat emateko balio izan du. Herritarren ahalduntzea, konfiantza eta konpromisoa izan ditu akuilu biraketa horrek.

Urteetan egindako lanaren fruitu gozo eta zapoetsua jaso du Euskalgintzak, erakundeekin eta hamaika eragilerekin elkarlanean sustatutako ekimen honekin. Eredu berri bat sortu da eta aurrerantzean ere bide horrek segida izan dezan, aktibo izan diren 220.000 herritar baino gehiagok eta hamaika eragile sustatzailek erakutsi dute beraien konpromiso irmoa.

Euskaraldiaren egunik garrantzitsuen hamabigarrena izango zela entzun genuen Amets Arzallusen ahotik. Hamabosgarrena da gaur.



JONE AMONARRIZ
KOMUNIKAZIO
TEKNIKARIA

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeca Calvo
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldezkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Aitzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Iñigo Terradillos



BESTE BULTZADA BAT, EUSKARAZKO INFORMAZIOARENTZAT

‘Tolosaldeko Ataria’-k webgunearen egitura eta diseinua berritu ditu, garai berrietara egokituz. Edukiei, mugikorrei eta publizitateari dagokienean, hobekuntza nabarmenak izango ditu, besteak beste.

Mikel Iraola

Tolosaldean gertatzen denaren berri ematen jarraitzeko aurrerapauso bat izan zen, duela bost urte, TOLOSALDEKO ATARIA-ren sorrera, euskarazko informazioarentzat bultzada bat.

Urrats asko egin dira orduetik, proiektua bera indartzeko bidean. Bada, bost urteotan asko aldatu da informatzeko modua, eta gaur egungo erronkei erantzuteko *Ataria.eus* webgunea berritu da, Tokikomekin eta CodeSyntax enpresarekin elkarlanean.

Mugikor bidezko nabigazioaren gorakada nabarmena izan da, eta hori aintzat hartu da webgune berriaren egitura eta diseinua pentsatzeko or-

duan. Hori dela eta, hasierako orriaren pisua arindu da, kargak azkarragoak izan daitezten. Irudiek ere indarra irabaziko dute. Ordenagailu bidez sartzen direnek, berriz, portadako antolaketa aldatu dela nabaritu dute: horizontalagoa da diseinua.

Herrietako eta gai konkretuen inguruko orrialdeak ere eguneratu dira, baita komunitatea bera ere. Orain, kide aktiboek saritu nahi izan dira, eta presentzia handiagoa izango dute azken ekarpenak egin dituztenek.

Publizitatearen presentzia ere nabarmenagoa izango da, proiektuak aurrera egin dezan ezinbesteko adarretako bat baita, Atarikideen eta erakundeen laguntzarekin batera.

Publizitatea egiteko modu berriak eskainiko ditu *ataria.eus* berriak.

Oraindik orain, arazoak eman ditzaketzen edota guztiz bukatu gabe dagoen zerbait aurki daiteke. Erabiltzaileei ere eskertuko genizueke akats horien berri ematea.

2018an ere gorakada

TOLOSALDEKO ATARIA sortu zenetik, interneteko audientziei goranzko joerari eutsi diote, urtez urte. Eta 2018a ez da salbuespena izan. Lehen urtean, hilaletako bisita kopuruaren batz bestekoa 20.000 ingurukoa zen. Aurten, 110.000tik gorakoa da. Horrenbestez, milioi bat bisita baino gehiago jaso ditu *ataria.eus* webguneak 2018an.



Rebecka Calvo kazetaria da koordinatzaile postua hartu duena. I. LUQUE

Koordinatzaile berria du 'Ataria'-k

Rebecka Calvo kazetaria izango da aurrerantzean erredakzioaren koordinatzailea, Naiara Roldan de Aranguizen lekukoa hartuta

Erredakzioa

Talde lana dago TOLOSALDEKO ATARIA-ren atzean. Hamalau pertsonako lan taldea. Lan postu denek dute bere ardura, baina koordinatzaileak, hiru euskarriak eta lan taldea koordinatu behar izaten ditu. 2016ko martxoan hartu zuen ardura hori Naiara Roldan de Aranguizek eta orain, Re-

beka Calvo kazetariari egokitu zaio lekuko aldaketari eustea.

Eskarmentua du Calvok eta orain arteko bideari jarraituz, lan taldearen gidari lanak egingo ditu: «Bost urte hauetan egin den moduan, urte-tik urtera hobetzen jarraitzeko ahalegina egingo dugu». Sorreratik egin moduan, Tolosaldean gertatzen den guztiaren berri euskaraz emango du: «Herriarrentzat gertukoak izaten ahaleginduko gara egunero, eta eskualdeko erreferentzia izatea da gure erronka, gure komunitate sarea handituz, eta nola ez, Atarikide berriak lortuz».

Tolosaldeko 28 herrietako berriak

etxe guztietara iristeko ahalegina egingo da, irrati, egunkari-astekari edota Internet bidez.

2019ko mahai egutegia

Urteroko produktuen artean hutsik egiten ez duena TOLOSALDEKO ATARIA-ren mahai egutegia da. Prest da 2019ko urte osoan mahai gainean izango den egutegia, etxean, lan tokian edota beharra den tokian jartzeko.

Erredakziora astelehenean iritsiko dira, beraz, Atarikideek eskuratu nahi badituzte Tolosako San Esteban auzoko 20. zenbakian dagoen erredakziotik pasa eta eskuratzeko aukera izango dute. Gainerakoan, hilaren 10etik aurrera, eskualdeko herri guztietako udaletxeetan utziko dira herritarren eskura jar ditzaten mahai egutegiak.

Ataria bertso jaialdia

Askok eta askok izaten dute markatua urte hasierak ekartzen duen Atariaren bertso jaialdia. Bada erreserbatu beharreko eguna urtarrilaren 19a da, eta 19:00etan hasiko da jaialdia, Leidorren. Sarrerak oraindik ez daude eskuragarri, baina TOLOSALDEKO ATARIA-k salgai jartzerako jakinaraziko du noiz, non eta nola eskuratu ahal izango diren sarrerak. Honako bertsolariak izango dira oholtza gainera igoko direnak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Oihana Iguaran, Nerea Ibarzabal eta Haritz Mujika. Eta lanean jarriko dituen, berriz, Amaia Agirre izango da.

 tolosaldeko
ataria

 ataria
irratia

 ataria
internet

 ataria
prentsa

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Komikiak sustatzeari helburu

Javier Navarro, Amanda Sim eta Paula Ansorena izan dira XI. Ibarra-Galtzacomik lehiaketan lehen saria eskuratu dutenak. Ibartar onenak, berriz, Irati Larreta eta Mattin Jauregi izan dira. Euskaraldia gaitzat hartuta egin behar izan dituzte komikiak.

Irati Saizar Artola

Galtzacomik komiki lehiaketa iritsi da bere amaiera. XI. edizioan, 200dik gora lan jaso dituzte, iaz baino 50 inguru gehiago. Azaroaren 30ean egin zuten sariak banatzeko ekitaldia Ibarako Kultur Etxean. Aurtengo komiketean, Euskaraldia izan dute jorratu beharreko gaia, eta irudimena erabiliz, euskararen aspektu guztiak landu dituzte.

Epaimahai lanetan Joseba Antxustegietxarte komikilaria eta Iñigo Martiarena *Mattin* marrazkilaria aritu dira. Sari banaketako ekitaldia girozkoen ere, Mattin bera aritu zen Ixabel Agirresarobe ipuin-kontalariarekin batera; batek ilustrazioak egin zituen, eta ipuinekin osatu zituen kontalariak hark eginak. Tarteetan, sarituen lanak pantaila handian jarri zituzten, eta sarituen presentzian Antxustegietxartek

ahoz goran epaitu eta hobetzeko gomendioak eman zituen.

Sari banaketa

Hiru maila bereizi dituzte lanak aurkezterakoan, eta adinei erreparatuta egin dute. Hamabi urtez azpikoetan, Paula Ansorena tolosarra izan da lehen saria eskuratu duena; *Euskara bihotzean* izenburua duen komikiarekin irabazi du. Bigarren saria Aitor Aristi irurarrarentzat izan da, *Kanikak*

Epaimahai lanetan Joseba Antxustegietxarte komikilaria eta Mattin marrazkilaria aritu dira

lanarengatik. Horiez gain, aipamena jaso dute Ekhi San Sebastian, Maite Ezkerro, Maria Jometon, Nahia Ansorena eta Nora Ansorenak. Ibarako komikilari onenak ere izan du saria, Irati Larretak jaso du.

Hurrengo adin tartean, 13 eta 16 urte artekoetan, Amanda Sim tolosarrak

lortu du lehen postua, *Batzen gaituzten hitzak* komikiarekin. Bigarren saria, berriz, Eneritz Jauregi ibartarrantzat izan da; *Euskaraz 365 egun, ez !!* lana aurkeztu du. Urte tarte horretan ere, aipamena egin nahi izan diote Maider Eraunzetamurgil komikigileari, eta Ibarako onenaren sariarekin etxeratu da Mattin Jauregi.

Helduen lehiaketan, 17 urtetik gorakoetan, bi komikilari saritu dituzte. Lehen postua Javier Navarro tolosarrak lortu du, *Ogibidea* izeneko lanarekin, eta Aitor Urkiola ondarrutarrantzat izan da bigarrena, *365 egun ala ondarrutar* komikiagatik.

Komikigintza sustatzeko helburuarekin antolatuta ohi du Galtzaundik lehiaketa hau. Parte hartze aldetik erantzun «bikaina» izan dutela adierazi dute, eta eskerrak eman nahi izan dizkiete Ibarako Udalarari, Xabiroi aldikariari, Tamayo denda, Mahala, Ibarako merkatarien elkarte eta Dannon Txokoa eta Karlantz edaritegiei, babesleak izateagatik.





OSO GUSTOKO DUDAN BESTE HITZA
"MUSUJI" DA ADIERAZTEN DUEN
GOKOTASUNA. SAMURRITASUNA ETA
MANTASUNA MUNDUKO ALT-XORRIK
EDERRENA DELAKO



AITA!
MUSUJI!



AZKENEAN, HITZ HAUEK DIRA EUSKARAZ
BIZITZEN SAHATZEKO DUTUDAN ARRAZOIAK,
EUSKARA BAITA...



...NIRE MANTASUNAREN
HIZKUNTZA.

AMALERA



DENBORAREKIN, "HERRI-HONEK 'ETXE'
HITZAK DUEN ESANAKHI OSOA DU
NERETZAT




...AH! LEGIN HONI ESKER JENDEAREN
ESTIMU ETA ADISKIDETASUNA
LORTU DUT.



PIDEA EZ DA SAMURRA
IZAN, BAINA...



...HERRI-HORREN SUSTRAIAK PIZRIK
MANTENTZEA DELAKO



HIZKUNTZA BAT MANTATZEA...



«AKUARELA ARRISKATUA DA, BAINA UKITU ORGANIKOA EMATEN DIO»

JAVIER NAVARRO
KOMIKILARIA

Etorkin batek hizkuntzari ematen dion garrantzia nabarmendu nahi izan du Javier Navarro komikilariak Galtzakoik lehiaketan. Akwarela hautatu du margotzeko.

Irati Saizar Artola

Komiki bat egiteak denbora asko eskatzen duen arren, Galtzakoik lehiaketan parte hartzea garrantzitsua ikusten du Javier Navarro komikilari tolosarrak. Aurten, hirugarren aldiz jaso du lehen saria.

Nola jaso zenuen berria?

Oso pozik. Nire kalkuluen arabera, uste nuen lehenago jakinaraziko zutela irabazlea, eta ez nuela irabazi pentsatu nuen. Behintzat oso gustura nongoen egindako lanarekin, eta konformatzen nintzen. Esan zidatenean, ordea, poz handia eman zidaten.

Ez da lehen aldian parte hartzen duzuna, ezta irabazten duzuna ere.

Ia-ia edizio guztietan hartu dut parte. Huts egin dut pare batean edo, denbora faltagatik. Azken honekin, hiru al-

diz geratu naiz lehen postuan, eta beste behin lortu dut bigarrena.

Urteroko zita da beraz, Galtzakoikena.

Bai, noski. Herri ondoan eduki, eta gainera, euskara hutsean dagoen komiki txapelketa bakarra da. Beti denbora faltarekin ibiltzen naiz, baina garrantzitsua iruditzen zait parte hartzea. Gainera, marrazteko dohaina ez galtzeko aukera ere bada, kalitatea mantentzeko.

Aurten, 'Ogibidea' izeneko lana aurkeztu duzu. Zein istorio kontatzen duzu?

Etorkin euskaldun baten pentsamenduak kontatu ditut. Euskaraz bizitzeko arrazoiak adierazten ditu. Etorkin horiei omenaldi moduko bat egiteko baliatu dut. Txikitatik euskaldunak garenok agian ez dugu ikusten esfor-

«Txikitán naturalagoa da komikiak egitea. baina gero, jendeak pentsatzen du umeen gauza dela»

tzu hori, baina berez, handia eskatzen du. Hizkuntzarekiko maitasun hori islatzeko, aukera polita ikusi nuen.

Gaia zein izango zen esan zizutenean, hasieratik izan zenuen ideia argi?

Aldatzen joan nintzen. Hasieran, sentimenduei begirako istorio bat pentsatu nuen, euskara galtzeko beldurrari lotutakoa. Baina, beldurra ez da oso sentimendu konstruktiboa, sentimendu negatiboa bezala ikusten dugu. Eta iruditu zitzaidan euskararekiko daukagun sentimendu hori positiboa behar zuela izan. Beraz, maitasuna jartzeari egokiagoa iruditu zitzaidan. Ildo horretatik tiraka etorri zitzaidan ideia.

Estreinakoz, akwarela erabili duzu. Zer moduzko esperientzia izan da?

Komiki bat egiten dudanean beti esaten nion neure buruari ez errepikatzen; berritu eta aurrera pausoak eman behar direla. Marrazten hasi nintzenean ideia banuen akwarelaz margotzearena. Pazientziarekin hartzeko prozesu bat da, eta hasieratik koloreekin seguru bazaude, emaitza begien aurrean doa itxura hartzen. Arriskatu da, baina ukitu organikoa ematen dio.

Aurten 200dik gora lan aurkeztu dira lehiaketan. Zer moduz ikusten duzu komikigintza gaur egun?

Pena da ordea, aurkeztu diren gehienak 17 urtetik beherakoak izatea. Txikitán naturalagoa da marrazkiak edo komikiak egitea. Baina hortik gora, jendeak pentsatzen du umeen gauza dela. Hori hausten saiatzea ez da batere erraza. Adibidez, Frantziako kontzeptu guztiz bestelakoa dago. Hangoentzat komikia artea da, eta beste zentzu bat ematen diote. Horregatik dira garrantzitsuak lehiaketa hauek. Ea horrela pixka bat suspertzea lortzen dugun.



Arrikruzko lehoia gure artean da

Jakingo duzuenez Arrikruzko lehoia San Telmo museoan dago jadanik. Ez da zirkuetan ikusi izan duzuen lehoi horietakoa, lehenagokoa baizik. Duela 600.000 urtetik duela 10.000 urte inguru bitarte Europan eta Siberian bizi izan zen lehoia, leizeetako lehoia ere deitua.

Baina badirudi ez zela leizeetan bizi, lehoien hezurak bereziki leize-zuloetan topatu badira ere. Leizeetara babes bila joango zen edo janari bila, animalia hil berriren baten usainak erakarrita. Ez dakigu zergatik baina duela 10.000 urte inguru, batzuek diote 13.000 urte, galdu egin zen eta haien hezurak iritsi zaizkigu gugana, baina ez asko, eta ez hezurdura osoak. Horregatik da garrantzizkoa Arrikruzko lehoia, hezurdura ia osorik zegoelako, hezurren % 97a edo berreskuratu baitzen. Eta beste berezitasun bat ere badu lehoi honek: hiru saiheks hezur puskatu eta konponbidean zeuzkan, kailua eginda. Beraz, istripuren bat edo atakeren bat izango zuen eta hiru saiheks hezur hautsi zitzaizkion, baina sendatze prozesuan edo ia sendaturik zeukan puskatutako zauria.

Neuk Arrikruzko leize-zuloan galdu eta lehoi hori topatzeko zoria izan nuen, 1966. urtean, Jesus Manuel Marotorekin batera. Biok Arantzazun ikasle geunden eta Arrikruzko leize-zulo osoa ikusi nahi izan genuen, Tolosako Felix Ruiz de Arkatek egindako planoak erabiliz. Leize-zulo osoak zazpi kilometroko galeriak ditu eta punta batekin bestera ia hiru kilometroko luzera izango du. Bada gu bukaerako Aranzadi gela erraldoian galdu ginen, arratsaldeko seiak aldera eta ez gintuzten topatu hurrengo goizeko bost eta erdiak arte. Ia hamabi ordu, irteera asmatu ezinik, bertan geratuko ginela pentsatuz eta gaueko hamaiak aldera haluzinazioak izanez. Kamioien hotsak, arkumeenak, ardien ezkilena entzun genituen, baina horiek denak gure buruak sortzen zituen hotsak ziren, gure izaera penatuak pentsa zezan kanpoko hotsak gertu zeudela, beraz gu ere kanpotik gertu geundela eta laster aterako ginela. Baina lur azpian hiru kilometro barrurantz

joanda geunden eta han ezin zen horrelako hotsik entzun. Bakarrik noizean behin entzuten genituen estalaktitek botatako tantoen «txip-txop» hotsak zoruan, putzutxoetan lehertzen zirenean. Dena ilunpe izugarri

etan eta isiltasun izugarrian, ur tanto hotsek urratzen zuten isiltasun beltzean. Baina Berastegiko Jesus Nazabal, gure ikaskidea Arantzazun, eta haren lagunak etorri ziren goizeko bost eta erdiak aldera, idi baten adarrarekin «pffuuuu» luzea joz eta huraxe izan gure salbazioa.

Gerotik Jesus Altunarekin lehoiaren hezurdura hura ateratzeko zortea izan nuen, hiru igandetan lan neketsua eginez. Eta Jesus Altunak lehoi haren ikerketa izugarri zehatza egin zuen alemanez eta Alemaniako Zientzia Aldizkari ospetsu batera bidali zuen. Gaur egun oraindik, leizeetako lehoien ikerketak egi-

ten direnean Jesus Altunaren ikerketa haren erreferentzia egiten dute, oso zehatza eta profesionala baitzen lana.

Beraz etxean, San Telmon, historiaurreko lehoi haren hezurdura eta azalpenak dauzkazue eta beste hainbat felinoren burezurak eta laginak. Ikus dezakezue baita ere Chauvet-Pont-d'Arc izeneko leize zuloan aurkitutako panel artistiko zoragarria, non ikusiko dituzuen leizeetako lehoien marrazki bikainak eta baita ere errinozeroena, oreinena eta beste bobido batzue-na, Sandro Boticellik margotu zuen *El nacimiento de Venus* koadro zoragarriaren inbidiarik gabekoa, baina duela 12 edo 14 mila urte egindakoa, leize-zulo bateko horma zakarrean.

Aprobetxa dezagun, beraz, udazken eder hau San Telmora bisita bat egiteko eta gero lehoiaren etxea izan zen Arrikruzko koba handi eta harrigarria ikusteko, familiako arratsalde pasako egitarauaren barruan. Ez zarete damutuko eta etxe inguruan dauzkagun altxor ezkutu eta ederrak ezagutu eta miretsiko dituzue, batez ere zuen umeek.



IÑAKI ZUBELDIA
ATARIA IRRATIA 107.6 FM



Galdu Venezian

Opor egun batzuk ditut eta nora joan ez dakidala nabil, zer diozu?

Zalantza handirik gabe, joan Veneziaara, gertu daukagu eta ikuskizun ikaragarria da Venezia osoa.

Zergatik diozu hori?

Ez nuke jakingo nondik hasi Venezia esaten dudanean. Topa dezakezun lekurik desberdinenena da, errepiderik ez dagoenez, egunerokoak modu desberdinean egiten dira, karro eta barkuekin. Kanalez josirik dago, eta dena oinez edo txalupatxoekin egiten da. Banatzaileak eta zabor biltzaileak karroekin, polizia txalupekin, umeak eskolara oinez edo txalupetan,... imajina dezakezun bezala ikuskizuna alde guztietan. Fruta saltzaileek ere, alde batzuetan, txalupetan dute euren saltokia.

Zer egin genezake Venezian?

Zeharkatu, alde batetik bestera ibili, disfrutatu eta galdu eta berriz ere galdu... Venezia sei auzo desberdinetan banaturik dago (irlak kontuan hartu gabe), eta auzo bakoitzak bere ezaugarriak ditu. San Marko -herriko patroia- ren izena darama- ezagunena da. San Marko plaza bertan dago, San Polo, Rialto zubiaren inguruan. Dorsoduro, unibertsitatearen auzoan Guidecca irla dago eta veneziar asko bizi da. Bizi oso polita eta bertakoa du. Cannaregio, ezaguna da bertan bizi izandako pertsonaia ospetsuengatik, Tintoretto, Tiziano edo Marko Polo besteak beste. Castello auzoa, turistikoa agian eta Santa Croce lasaia. Zentroan -Uneskoren humanitateko

ondare izendatua-, 455 zubi daude kanalak zeharkatzeko. Egia da, hasiera batean galduta zauden sentsazioarekin ibiltzen zarela, orientatzeko ez da eta hain erraza. Kaleak (*sestiere* izenekoak) zenbaturik egon beharrean auzoka zenbaturik daude. Baina kale gehienak plaza edo *campo* deiturikoetan amaitzen dira, eliza edo jauregiekin topatuz. Kale estu, kanal, zubiekin... topo egingo dugu.

Ikusgarriak dira kale asko, eta alde batetik bestera oinez zeharkatzea gomendatuko nuke, baina beste garraio mota bat behar izanez gero, *Vaporetto* hartu beharko genuke, bai Kanal Nagusia zeharkatzeko, baita inguruan dauden hainbat irletara joateko ere; Lido -bere zinema mostrarengatik ezaguna da-, eta baita Murano, Burano eta Torcello bisitatzera joateko ere. Beste aukera Gondolan kanalak zeharkatzekoa da, gaur egun turistentzat dago ipinia, eta gondolariekin negoziatzea ezinbestekoa da.

Ezaugarri berezi hauez gain, zer esan genezake?

Veneziako kaleetan artea sumatzen da nonahi, hiri unibertsitarioa da eta alderdi batzuetan sumatzen da. Arte ederretako ikasleak *Academmia* zubiaren inguruan ibiltzen dira, baina eliza eta Jauregi desberdinetan entzun eta ikus ditzakegu antzezlan desberdinak. Vivaldiren emanaldiak esate baterako, eta urte guztian zehar La Fenice antzokian prestigio handiko emanaldiak ere izaten dira. Pintoreak ere alde guztietan topa ditzakegu, San Marko plazaren inguruan, turistentzat

lana egiten dutenak, edo hiri guztian zehar dauden galerietan daude. Baita hainbat eskultore eta maskara egile ere, Guerrino Lovato ezagun bezala. Ezin dezakegu ahaztu, bi urtean behin, Venezia egiten da *Bienalla* eta horrek ere artista asko erakartzen ditu.

Urte osoan zehar bisita daiteke Venezia, ez du xarma galtzen, baina inauterietan joatea aukera berezia da. Urte osoko Veneziako ezaugarriez gain, inauterietako saltsan murgildu gintezke. Egun horietan egiten diren festa eta emanaldi asko, Veneziako Palazzo desberdinetan egiten dira, asko pribatuak dira. Baina ikusgarria da Venezia inauteriak nola bizi dituzten ikustea, gerturatu San Marko plazara eta utzi bertako ikasleek maskara bat margotu diezazuten aurpegian.

Gosea dugunean zer jan genezake?

Italian gaudela ezin dugu ahaztu, Italiako iparraldean, Veneton, hortaz pasta jatea ezinbestekoa da, mota desberdinetan jan daiteke. Pizzak oso onak daude, bai jatetxeetan eta baita kaleetan jateko saltokietan ere. Momentuan egiten dituzte eta ikaragarri goxoak dira. Pastaz gain, bakailao keztatua ere tipikoa da eta goizerdian mokadutxo bat hartu nahi izanez gero probatu bertako *tramezzinok!* Ezin ahaztu izozkiak, inoiz probatu ditudan goxoenak Campo Santa Margherita dagoen izozki dendakoak dira! Eta edateko, edozein ordutan edan daitekeen *Spritz al aperol* izeneko edaria, asko edaten da eta edozein ordutan har daitekeen edaria da.

Aukerak asko erakarri dit, ostatu mota desberdin asko dago, nahiz eta Venezia orokorrean oso merkea ez izan, aukerak badaude eta egun gutxirako bazoazte merezi du bertan ostatua hartzea.

Bisitatu, ez duzue Venezia bezalako herri bat topatuko. Bertako historia, arte eta kondairarik duenik ez da... Galdu!



MYRIAM GURRUTXAGA ETA ENARA ETXEBERRIA



TEL edo hizketaren berriazko nahastea

12

Nahasmen hau oraindik orain gutxi aztertu den gaia da. Neurologia mailan, logopedia mailan, azterketak egin dira eta ikerketak egiten ari dira trastornoa hobetu ulertu, prebenitu eta interbentzioa hobetzen laguntzeko. Baina maila afektiboan, psikologikoan gutxi landu den gaia da, eta pisu handia dauka bai TEL daukan pertsonarengan eta noski, baita bere familian ere.

Baina zer da TEL?

Haurra hizkuntza barnerraten eta erabiltzen hasen da, honela 6-9 hilabeteetan bere lehen hitzak esango ditu. Hiru urterekin hitz egiteko gai izango da, esaldiak erabiltzen ditu bere nahiak adierazteko, harremanak bilatuko ditu eta komunikatzeko hizkuntza erabiltzen du.



IDOIA APAOLAZA
PSIKOPEDAGOGOA ETA
EKIMENA ZENTROKO
ZUZENDARIA

Baina badaude haur batzuk, garapen nahasteak direla eta, hizkuntza ikastea eta erabiltzea asko kostatzen zaienak. Lengoai funtzionalarekin lotutako arazoa da, hau da, haurra ez da gai hizkuntza erabiliz bere nahiak adierazteko. Arazoa larria eta iraunkorra da. Lengoaiaren jabetzearen hasieran agertzen da.

Haurtzaroan eta nerabeztarokoan jarraipena izaten du. Batzuetan heldutasunean arrastok gelditzen dira. Ulermen edo adierazpen arazo horiek ez dira gertatzen adimen urritasunagatik, edo urritasun sensorial edo emozionalagatik, ezta garapenaren erabateko trastornoagatik ere.

Haur hauek zailtasun nabarmenak izaten dituzte ahozko hizkuntzarekin, hitz egiteare-

kin eta noski idazketa, irakurketa eta ulermenarekin.

Barnerakoiak izaten dira, harremanak izatea asko kostatzen zaie eta frustrazioa toleratzeko lan asko izaten dituzte. Testuinguru honetan, ezinbestekoa da esku hartze logopedikoa egitea. Esku hartzeak, haur eta kasu bakoitzaren hizkuntza sustatu

**«Haurra ez da gai
hizkuntza erabiliz bere
nahiak adierazteko»**

eta indartzeko lagunduko du. Puntu honetan, laguntza psikopedagogikoa jasotzea ere garrantzitsua da ikasketak, familia eta haurraren harremanak indartzeko.

TEL-aren kontzientzia indartzeko eta familiek babesa izan dezaten, TEL Euskadi elkarte dago. Elkartek, familiei babesa ematen die eta trastornoaren ezagutza zabaltzen lan handia egiten dute.



KATILUA



8 EURO

BOLIGRAFOA + KOADERNOA



4 EURO

BOLIGRAFOA + KOADERNOA + KATILUA



10 EURO

ATARIKIDEAK

10 EURO

6 EURO

14 EURO

BESTIAK

ESKURATU ZUREA ATARIAREN BULEGOAN
SAN ESTEBAN 20, TOLOSA

A portrait of an elderly man with white hair, wearing a black beret and a dark quilted jacket. He is looking slightly to the right of the camera with a neutral expression. The background is a blurred outdoor setting with a red wall and a window.

«MUNDURA ATERA NAHI

GENUEN GURE KULTURA»

ANTXON ELOSEGI

ENPRESARIA ETA KULTUR SUSTATZAILEA

Tolosako Ekinbide Etxearen sorreran parte hartu zuen duela mende erdi, eskulturak herrian lekua izan dezaten lan handia egin du, eta zezenketetan ere bere arrastoa utzi du, besteak beste, bi aldiz Tolosako zezen plaza betez.



«Jatea beharrezkoa den moduan, beti zerbait egitea beharrezkoa izan da niretzat»

Tolosako pertsonaia ezagun horietakoa da. Enpresaria izateagatik, kultur munduan aritzeagatik, zezenketetan murgilduta egoteagatik... Geldirik ez baina, beti mugimenduan egotea da bere ezaugarrietako bat, eta 86 urterekin ere, nahiago du, ahal duen neurrian, gustuko duen horretan aritu. Berriki omendu egin dute. Aranburu jauregian *Gaur eta hemengo eskultoreak* erakusketaren inaugurazioan artisten eskutik omenaldia jaso du Antxon Elosegik Tolosan eskultura zabaldu eta ezagutarazteko egin duen lanarengatik.

Kulturaren alorrean egindakoagatik aipamena jasoz duzu. Zer sentitzen da?

Gaztetatik izan naiz herriaren aldeko ekimenak bultzatzeakoa. Beharrezko ikusi dut gauzak egitea, ez soilik nire bizitza aurrera ateratzeko, baita herritarren alde egiteko ere. Kulturari eman diot garrantzia, zabaltzen diren baloreengatik, pertsonenganako elkartasuna eta errespetua, esaterako. Duela 50 urte jaio zen Tolosako Ekinbide Etxea. Lagun batzuk hasi ginen mugimendua sortzen. Hortik aurrera zuhaitz baten moduan, adar asko sortzen eta hedatzen joan dira, hala nola, abesbatzak, txotxongiloak eta eskulturrak. Gauza gehiago ere egiten ziren, baina, horiek dira geratu direnak, egonkortuta. Herriaren ondasun modukoa

dira. Niretzat omenaldi handiena da pentsatzea mugimendu horretan baikortasunez egon naizela ni.

Ez zara zu geldirik egoteakoa.

Ez. Jatea beharrezkoa den moduan, beti zerbait egitea beharrezkoa izan da niretzat. Beti izan dut gauza berriak egiteko nahia, eta ez geldirik egoteakoa. Horregatik, gazteei mezu hori zabaltzen diet, alegia, kexatu baino, aurrera egiteko, gauza asko egin daitezkeelako. Bakoitzak bere mailan gauza asko egin ditzake. Proiektuak pentsatu eta presatu daitezke, eta horretarako, gogoia eta maitasuna beharrezkoak dira. Dirurik ez dagoela pentsatuta atzera egiten da askotan, baina saiatu egin behar da, eta zure buruan duzun ideia horretan sinesten baduzu aurrera aterako da. Gu ia dirurik gabe hasi ginen gure hastapenetan.

Nondik datorkizu eskulturrekiko eta kulturarekiko zaletasuna?

Betidanik sentitu dut. Gazte nintzela hasi nintzen elkartetan mugitzen. Inauteriekin, esaterako, modu batera izaten ziren, eta gu hasi ginenean beste zentzu bat eman behar zitzailela uste genuen: 70ean abestien partitura guztiak bildu genituen, Juanito Garmendiarekin liburu bat egin genuen, Berdura plazako kontzertuaren antolaketa... Gerra bukatu ondorengo garaia zen, eta inauteriei beste mai-

la bat eman behar zitzaiela uste genuen. Kirolaria ez naiz izan, kulturaren bidetik jo dut. Aitarengandik tolosarra izateko sentimendua jaso nuen, eta horregatik nire herriarengatik gauzak egitea gustatu izan zait eta gustatzen zait oraindik aukera dudanetan.

Oraindik ere, beraz, gelditu gabe jarraitzen duzu.

86 urte ditut. Oso umoretsua naiz, eta txantxak asko gustatzen zaizkit. Nik jendeari esaten diot hamalau falta zaizkidala oraindik, nire helburua 100era iristea baita. Beraz, oraindik denbora badut gauzak egiteko, hori betetzen bada.

Tolosarra izatea aipatu duzu. Tolosar izatea nola azaltzen da?

Lehendabizi pertsona izan behar da, emakume edo gizona. Bertan, Tolosan, jaioz gero, nire sustraiak tolosarrak dira. Nire oinarria hor dago, eta normala da sustrai horiek gorantz jotzea. Duela 100 urte Tolosak indar handia zuen, paper fabrika, inprenta... Kultur mailan indarra zuen, baina, uste dut ez dugula gehiegi edan garai hartako tolosarrek egin zutenetik. Gauza asko egin ziren, industria asko zegoen, eta oso garrantzitsua zen herri moduan. Iritsi dira, noski, garai hartako sustraietatik adarrak gaur egunera, baina, ez agian, garai hartako maila berean. Zentzu batean pixka bat geratu egin da. Gipuzkoa mailan garrantzitsua goa zen lehen.

Hein batean hortik etorri zen Tolosako Ekinbide Etxea bezalako ekimenak sortzeko beharra?

Bai. Ikusten genuelako gure gurasoen edota aitona-amonen garaian Gipuzkoako gainerako herrien aurrean gailendu egiten zela Tolosa. Lagun talde bat elkartu eta hasi ginen ideia sortzen eta garatzen. Nik talde lana nabarmentzen dut beti. Batek ideia oso onak izan ditzake, baina, ez badu jendearen babesa, laguntza, ilusioa eta lanerako gogoia zaila da horiek aurrera ateratzea.

Lantalde horretako kideak izango dituzu gogoan.

Bai, asko, gainera. Joxe Mari Goñi, Joxe Migel Zeberio, Mixel Perales, Migel Arretxe, Juanito Jauregi, Juan Jose Arsuaga, Juan Inazio Elozegi, Penilla, Ixiar Orbea, Rosario Zeberio, Maria Jesus Lopez, Izaskun Garate... Talde bat ginen. Gainera, urte haietan horrelako zerbait jaiotzea oso zaila zen. 70eko hamarkadan ginen, garai zailak ziren, Burgosko prozesua tartean, beraz, pentsa. Guk aurrera egin ge-



Omenaldi hunkigarria egin zioten 2012

nuen, pentsatzen genuelako Tolosan kultur arloan lana zegoela egiteko. Iparragirrek zioen moduan kultura eman eta zabaldu behar genuela iruditzen zitzagun. Abesbatza bazegoen, baita konposatzaileak ere, eta gure ideia zen ez soilik herrian bertan egitea, baita herritik ateratzea ere. Eta, pentsa noraino iritsi garen. Urte hauetan guztietan mundu osoko ia 900 abesbatza igaro dira Tolosatik, eta guztiek izan dute euskaraz abesteko eginkizuna. Baina, hasiera oso gogorra izan zela ez da ahaztu behar.

Nola egiten zenuten lan hasiera haietan?

Amateur moduan egiten zen dena. Ez zen orain bezala. Guretik jarri behar izaten genuen askotan. Garai hartan diru laguntzak ere ez ziren izaten.

Pasa den urtean bete zituen Tolosako Ekinbide Etxeak 50 urte. Omenaldiak ere izan ziren urteurrenagatik, eta txapela ere jantzi zizuten lehendabiziko presidentea izateagatik. Hasiera haietan espero al zenuten iritsi deneraino iristea?

Ez. Hasieran ilusio handiz hasten zara, baina noraino iritsi daitekeen ezin zen pentsatu. Hori bai, iparra ikusten genuen, hau da, garbi genuen norantz egin nahi genuen: Mundura atera nahi genuen gure kultura.

Aurten, berriz, mende erdia bete du Nazioarteko Abesbatza Lehiaketak. Izan al zara aurten Leidorren?

Bai. Hutsik egin gabe.



2an Nestor Basterretxeari Tolosako I. Eskulturasteko itxiera ekitaldian. I. TERRADILLOS

Ba al da alderik hastapeneko urteetatik?

Gaur egun, oso-oso teknikoa da. Hasiera hartan humanismoa edo sentimenduari ematen genion garrantzia. Aldaketa oso handia nabaritu da. Lehen 20 urteetan humanista zen gehiago, eta orduetik teknikoagoa da. Eta, agian, bizitzako gainerako gauzeekin antzeko zerbait gertatu da. Bi alderdiak beharrezkoak dira nire ustez, sentimendua eta arlo teknikoa. Bihotza jartzea gauzei beharrezkoa da. Bien arteko oreka bilatzean dago kontua.

Urteko zure hitzordu garrantzitsuetakoa al da?

Asko daude. Ekimen handiak izan gabe, gauza txikiak ere badira bihotzera iristen direnak. Gauza txikiak ere ematen diete zentzua gure bizitzari, horregatik ez nuke jakingo garrantzitsuenen artean aukeratzen.

Zer gauza txikik elikatzen dute zure bizitza?

Hamabost urtez, esaterako, Tolosako zezen plazako enpresaria izan naiz. Afizio handia izan dut zezenekiko. Gazte nintzela Tolosan afizio handia zegoen. Bitan bete nuen Tolosako zezen plaza, sarrerarik gabe geratu zen bi zezenketatan. Tolosako zezen plazari munduko handiena ezizena jarria diote ez delako betetzen, beraz, lorpen handia da. 92an eta 99an 5.000 pertsonarekin bete zen, kanpotik ere etorritako jendearekin. 1991 hasi nintzen ni zezenketak antolatzen, eta 2004. urtera arte egon nintzen.

2003. urtean 100 urte bete zituen zezen plazak.

«Aldaketa oso handia nabaritu da Abesbatza Lehiaketan. Lehen 20 urteetan humanistagoa zen, eta orduetik teknikoagoa bilakatu da. Agian, bizitzako gainerako arloetan ere antzeko zerbait gertatu da»

Hain justu, horregatik jarri genuen Tomas Hernandez Mendizabalen zezenaren eskultura plazaren kanpoaldean. Herriaren zentzua du, izan ere, zezenarekin txarangaren kapela eta apustuen edo herri kirolen harriak ditu. Plaza, hori baita: zezenak, inauteriak eta herri kirolak.

Hiru horien zale al zara?

Zezenketen zale naiz. Badakit gaur egun ez dagoela lehen bezain ondo ikusia, baina, ni ez naiz eztabaida horretan sartzen. Uste dut gai askotan bezala, ezagutu gabe hitz egin dela maiz zezenketen inguruan. Inauteriak ere ikaragarri gustatzen zaizkit. Txikitatik gustatu izan zait, eta gaur egun ere ateratzen naiz mozorrotuta. Iaz ere txarangarekin atera nintzen zezen plazan itzulia emanez. Oso kuttun ditut inauteriak. Eta, herri kiroletan aizkora gustatzen zait. Estetikoki ere ederra iruditzen zait.

Tolosa eskulturaz beteta dago. Baina, atzera eginez, horien hasierak ere ez dira beti errazak izan. Trianguloko Atautsek, adibidez, polemika sortu zuen herritarren artean.

Museoetara ez dira gehiegitan joaten herritarrak, beraz, artelanak kalera ateratzea, eta horiekin bizitzea pentsatu zen. Eta, nolabait, probokatzea, eztabaida edo zeresana sortzea. Eta, sortu zuen, polemika, baina, gaur egun, paisaiaren parte da.

Eskultura askok sortu dute zeresana, lekuari dago-kionean, esaterako, Bentaundikoa, kasu.

Zaila da gaur egun ulertzea, hura une eta testuinguru zehatz batean izan baitzen. Pardines eta Etxebarrietarekin gertatua kontuan hartuta, zerbait egiteko nahia eta beharra ikusten zen. Oteizak eskultura bat egin nahi zuen eta berak esan zuen kokalekuak hura behar zuela izan. Triangulokoa eta Bentaundikoa egin zituen aldi berean. Oso artista berezia eta interesgarria zen. Berak esandako gauza asko geratu zaizkit buruan, eta horietako asko denborarekin konturatu naiz garrantzi handikoak direla.

Oteizarekin bezala harremana izan duzu artista askokorekin.

Nestor Basterretxearekin adiskidetasun handia izan nuen. Iñaki Epelderekin ere bai, eta pena izugarria sentitu nuen hura joan zenean. Jakintsua zen, pertsona goxoa eta berezia.



Askok ikasi zenuen artista hauetatik.

Bai. Kultura errespetua da, baina, kultura ez da isilik egoitea. Gogoeta eta eztabaida egitea da, eta beti buruarekin, zentzuarekin.

Ia gaur egunera arte egon zara Topic-en, aholkulari batzordeko kide moduan.

Gaur egun tarteka izaten naiz, baina, iruditzen zait lekuak pasa behar zaiela gazteei.

Kulturaren asko mugitu zara, eta baita, munduan zehar ere.

Bai. 35 urterekin utzi nuen motoa, eta 75 urterekin berriro ere moto bat erosi nuen. Azken hamar urtetan Espainian zehar kilometro ugari egin ditut moto gainean. Cid Campeadorren ibilbidea, Kixotearena, Transpirenaica, Zilarrrezkoa... 125eko motor gainean hori guztia. Herri txikietan geldialdiak eginez egin ditut ibilbide horiek, eta asko ikasi dut bertako herritarrekin hitz eginez. Izan ere, historiari ez duela ezertarako balio esaten da, baina, historia ez dakienak ez daki ezer.

Elkartasun mailan egin duzun ekarpena ere aipatzekoa da.

Hori egokiagoa izaten da norberak gehiegi ez zabaltzea, egin behar direlako egiten direlako, ez gero horretaz hitz egiteko. Dena den, bat nabarmentzekotan, Andeetan maputxeekin izan nuen egonaldia aipatuko nuke. Oso polita izan zen, eta zer pentsatua eman zidan. Duela hamar urte joan nintzen, eta euren bizimodua bertatik bertara ikusteko aukera izan nuen. Tolosarra den Iñaki



Azoaroan omenaldia egin zioten Antxon Elosegiri. I. G. L.

Arriola eskolapioak gonbidatuta joan nintzen, eta handik bi proiekturekin itzuli Tolosara, eta gauzatu ahal izan ziren. Beti pentsatu izan dut laguntzeko biderik egokiena, diruz laguntzea baino gauzak egiten erakustea dela.

Nola ikusten duzu gaur egungo Tolosa?

Niri beti gustatzen zait gauzak hobeto joatea, hobera egitea eta horregatik, kritikoa naiz. Tolosari buruz, bi puntu aipatuko nituzke. Batetik, industria galdu duela esango nuke. Lursailik ez zegoelako gertatu dela esaten zen, baina, ez zait iruditzen gaur egungo teknologiarako lursail handiegirik behar denik. Horretan atzetik goaz, ez da saltorik eman eta iruditzen zait herri honetan ezaugarri asko dituen jendea dagoela. Jarraikortasun modukoa dago. Lehen aipatu moduan, duela 100-120 urte zer zen Tolosa edo orain alde handia dago. Bestetik, merkataritzan lan handia egin da, baina, zaila da aurrera egitea gaur egungo lehiakortasunarekin. Donostia hor dago, gertu eta ez da erraza horrekin lehiatzea.

Kultura mailan nola ikusten duzu?

Alor horretan hobeto dagoela iruditzen zait. Tolosako Ekinbide Etxearen ekimenak aipatu ditugu, baina, beste asko eta asko dira. ATARIA bera ere hor dago, eta azpimarratzekoa da. Gauzak egiteko dirua garrantzitsua eta beharrezkoa da, baina, beste ezaugarri batzuk lehenago jarriko nituzke zerrendan. Bizitzan ere nire lehentasunezko zerrenda horrela osatzen dut: osasuna, maitasuna, umorea eta dirua azkenik.

«Bizitzan ere nire lehentasunezko zerrenda horrela osatzen dut: osasuna, maitasuna, umorea, eta dirua azkenik»



20

ALEGIAKO GAZTETXEAREN HISTORIA, IKUSTEKO A ETA ENTZUTEKO A

Asteotan Alegiako Gaztetxearen 31. urteurrena ospatzen ari dira. Urte guzti hauetan Gaztetxeak bizitu duena eta bizi arazi duena kontatzeko dokumental bat egiten ari dira. Urtarrila bukaera aldera, egun berezi bat eginez, aurkeztu nahi dute.



Imanol Garcia Landa

Alegiako Gaztetxea eza-
gutzeko, nola jarri zen
martxan, bere 31 urteen
zein ibilbide izan
duen, eta egun duen
mugimenduaren berri
emateko, dokumentala
egiten ari dira. Bost
gazte elkartu dira horretarako, Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan elkar
ezagutu dutenak: Alegiako Alex Goi-
koetxea, Arkaitz Balda eta Iker Lla-
mas, Gaztetxeko kideak, eta Denis Lei-
za lesakarra eta Ibai Ros beratarra. Do-
kumentala egitearen ideia aspalditik

Gaztetxean bertan pentsatuta zuten zerbait zen. «Herriko beste pertsona batzuk egin zuten lehenengo saiakera, baina ez zen aurrera atera, eta orain guk ekin diogu proiektuari», esan du Baldak.

Bere aldetik, Leizak buruan zuen gaztetxeren baten inguruko dokumental bat egitea: «Andoaingoarena egitea nuen buruan. Gero eskolan elkar ezagutu dugu eta gaztetxea festetan ere ezagutu nuen. Ikusi nuen kontzertuez aparte baduela mugimendua, eta merezi duela dokumental bat egiteak. Eta guk egin genezakeela lan hori». Aurretik egin dituzten akatsetatik ikasita, bai soinu aldetik eta baita

antolakuntza aldetik, dokumentala «bide onetik» doala diote. «Produktzio aldetik lan bikaina, zuzendaritzatik ere bai, eta soinu aldetik txukun ari gara. Kalitatezkoa aterako da», esan du Leizak.

Goikoetxeak eta Baldak ikus-entzuzko zenbait proiektutan beraien ekarpenak egin dituzte, baina ez dutela eskarmentu handirik diote. «Proiektu hau ikasteko balio izaten ari zaigu», esan du Goikoetxeak. «Denisek badu eskarmentua, zenbait lan egin dituelako zinema eta telebistaren alorrean, eta gu ikasten ari gara mundu hau nola doan, aurreko proiektuetatik ikasiz, azkenean zerbait txukuna egite-

ko». Baldak gaineratu duenez, «zerbait profesionala egin nahi dugu, baina baita guk egitea ere, eta egiten ikasten denez, horretan ari gara».

Alegiako Gaztetzearen hiru hamar-kadak jaso nahi izan dituzte irudietan. «30 urte daramatza aktiboki, eta horrek islatuta egon behar du», esan du Goikoetxeak. Hori horrela, egina dagoen «dokumentazio lan handia» erabili dute: kartelak, bideoak, argazkiak... «Ikusten genuen, adibidez, dokumentazio lan hori ez zegoela inon publikatuta. Eta dokumentazio hori guztia komunean jarri eta zerbait egiteko ideiatik abiatu ginen». Ikus-entzunezkoa osatzerakoan, beste ideia nagusia Alegiako Gaztetzearen historia ez dela bakarrik «kontzertuak antolatzen diren eta gazteak elkartzen diren» leku bat erakustea izan da. «Mila ekarpen egiten ditu: antzerkiak izan dira hemen, solasaldiak... Eta aukerak ematen diren, espazio eta leku libre bat da. Hori dokumental baten bidez islatzea ideia ona eta beharrezkoa zela ikusi genuen», esan du Leizak. Baldak gaineratu du «gertutasuna» emango zaiola ikus-entzunezkoari, eta horrek ere bere garrantzia duela, jende gehiago gaztetzera joan dadin eta erabil dezan.

Dokumentazio guztiaz aparte, hainbat elkarrizketatu izango dira dokumentalean. «Garbi dago eboluzio bat izan dela», esan du Goikoetxeak. «Badago jendea hasieratik egon dena eta urtetan zehar bere gauzak egin dituen. Dokumentalean jende pila bat elkarrizketatuta da, adin ezberdinetakoa, eta korrante ezberdinetakoa». Elkarrizketekin batera tartekatuko dituzte garai bateko kartelak, argazkiak eta irudiak, eta dokumentazio lan hori jasotzen egindako lana eskertu diote Txarli Gesteirari. «Oso eskertuta gaude hasierako urteetatik irudiak ja-



Ezkerretik eskuinera, Alex Goikoetxea, Arkaitz Balda, Denis Leiza eta Iker Llamas. ATARIA

sotzen aritu den jendeari. Horrelako dokumental bat egiten hasteko aukera eman du. Ezingo ginen orain egiten ari garena egiten aritu, ez balego lan guzti hau eskuragarri, esan dute ikus-entzunezkoaren egileek.

Parte hartzeko ilusioa

Elkarrizketatuei proiektuan parte hartzeak «ilusio handia» egin diela adierazi du Baldak: «Batez ere Gaztetzeara okupatu zuten pertsoneri. Urte asko pasatu dituzte bertan. Ilusioa egiten die Gaztetzearak bizirik jarraitzen duela ikusteak». Goikoetxeak gaineratu du «harrিতuta» daudela elkarrizketatuek dokumentala nola hartu duten ikustean: «Jendea oso inplikaturik ikusi dugu hasieratik. Elkarrizketak beraiek prestatu dituzte, dokumentazio lan handi bat eginez garai hartako bizipenak gogoratzeke, eta gauza oso politak eta interesanteak ateratzen ari dira: anekdotak, garaiko egoera,... Orokorrean oso aberasgarria gertatzen ari da do-

kumental hau egitea, besteak beste, guretzako, gaztetzearak berak duen transzendentzia hori dena ez dugulako bere osotasunean bizi».

Elkarrizketetan nostalgia asko narbitzen dela dio Leizak. «Pasioarekin kontaktatzen dituzte garai haietako gertaerak eta ilusioarekin hartzen dute gaur egungo gazte batzuk beste helburu batzuekin hartzea Gaztetzeara ideia». Bestalde, Gaztetzearen historia ezagutarazteko egiten ari diren lana orain 30 urte okupatu zutenek eta gaur egun gaztetzearan daudenek «ilusio berdinarekin» hartzen ari direla gaineratu dute. Era berean, dokumentala Alegiatik kanpo erakustearen garrantzia nabarmendu dute, ez baita bilduta dagoen dokumentazio oso hori aurretik zabaldu.

Elkarrizketak egitera ere Alegiatik kanpora joan dira. «Amoroton izan ginen aurreko batean grabatzen, eta ikusi dugu pertsona horiek ere badutela interes bat eta jarraitzen dutela Gazte-



txeak duen ibilbidea», esan du Goikoetxeak. «Horrelako gauza bat aurrera eramatea baloratu behar den gauza da, eta herri mailan horri eutsi behar zaiola azaltzen ziguten». Baldak gaineratu duenez, «ikusita nola doazen elkarrizketak, jende askorentzat emozio handia sortuko duen lana izango da». Bestalde, Goikoetxeak azaldu duenez, «zorritzarrez gaur egun ez dagoen jendea ere agertzen da dokumentalean islatuta, eta horiek ere une hunkigarriak dira, eta herrian bertan jakin beharrekoak, egongo baita jendea ez duena horren berri izango eta dokumentalagatik ez bada, ez lukeena jakingo».

Udalaren laguntza

Dokumentala egiteko finantziazioan udalak laguntza eman diela azaldu dute. «Hasieran pentsatu genuen gure kabuz egitea finantziazioa, baina gero pentsatu genuen udalak ere ekarpen bat egin ahalko zuela», esan du Leizak.

«Harrera oso ona izan genuen. Beraien arrazioa izan zen horrelako lan bat egiteak merezi duela, eta aurrekontua neurrikoa egin dugu». Udalaren laguntza, materiala alokatzeko eta herri batetik bestera mugitzen egiten ari diren gastuentzako erabili dute. «Gure lana gure borondatez hartu dugu bost lagunok. Gero, edizioa egiteko pertsona bati ordainduko zaio», esan du Baldak. Material audiobisualak gastu handi bat suposatzen duela gaineratu du Goikoetxeak, eta udalari eskertu dio eskainitako laguntza: «Bestela, ezin izango genuke proiektu hau aurrera eraman». Proiektuak kalitatea izateko finantziazioaren beharra nabarmendu du Leizak, eta edizioa horretan iaioa den norbaitek egiteak: «Denbora aurrezten du, eta kalitatea ematen dio».

Dokumentala taldean egindako lana izaten ari dela diote, eta zenbait alorretan ardurak banatu dituzte. Ros eta Balda dira soinua grabatzeko lana

«Jendea oso inplikaturik ikusi dugu hasieratik. Elkarrizketak beraiek prestatu dituzte, dokumentazio lan handi bat eginez garai hartako bizipenak gogoratzeko, eta gauza oso politak eta interesanteak ateratzen ari dira»

ALEX GOIKOETXEA

«Zerbait profesionala egin nahi dugu, baina baita guk egitea ere, eta egiten ikasten denez, horretan ari gara»

ARKAITZ BALDA



egiten ari direnak. Llamas aritzen da batez ere kamerarekin, eta Leiza eta Goikoetxearen esku dago produkzio lana, besteak beste, elkarrizketatuak lotuz. «Bakoitzak bere lana hartu du, baina hasieran gidoia denen artean lotzen joan ginen, zein elkarrizketatu, ze plano sartu eta abar», argitu du Baldak. Hori bai, gidoia sortzerakoan lagundu du egileen artean hiru Alegiakoak izateak. Bestalde, Alegiako Gaztetxetik aparte dagoen jendea ere sartu dute, esaterako Cesar Strawberry Def Con Dos taldeko abeslaria, eta horretan Leizak izan du ardura, musika munduarekin duen lotura-rengatik.

Dokumentala egitea lasai hartu nahi dute, bere denbora eman, baina, aldi berean urteurrenaren harira antolatu duten egitarauaren barruan txertatu nahi dute. «Asmoa da urtaririla erdialdera edo otsaila hasiera aldera egun bat zehaztu eta festa bat egitea dokumentala aurkezteko», esan du Baldak. Egun berezia izatea nahi dute. Dokumentala gauzatzen boskote bat ari bada ere, guztiak direla dokumentalaren partaide dio Goikoetxeak: «Elkarrizketan parte hartzen dutenak, laguntza eman diguten guztiak... Gaztetxearen inguruan

jendea mugitzeak badu balore bat, eta hori dena ospatu beharreko zerbait da, festa bat merezi du azkenean hau dena aurrera eramateak».

Dokumentala emateaz gain, egun horretan deialdi orokor bat egitea pentsatzen dute, parte hartu duten guztiak elkartzeko. Bazkari bat egitea aurreikusten dute, eta kontzertu berezi batzuk ematea ere bai, Gaztetxearekin lotura berezia duten taldeen abestiek.

Dokumentalaren proiektzioa «denok batera ikusi eta sentituko dugun» zerbait izango dela esan du Leizak. «Gero, Alegian gaude, eta gauak luzatu egiten dira...».

«Oso leku anitza da Gaztetxea», esan du Goikoetxeak. «Ez da bakarrik gazte deitzen zaion jendeari erreferentzia egiten dion lekua. Ateak irekita daude edozeinentzako, autogestioaren bitartez, bere ideiak eta sormena aurrera eramateko». Baldak gaineratu duenez, «gazteak gabiltza antolakuntzan, baina herri guztia-arentzako zuzendutako ekitaldiak egiten dira. Haurrentzako eguna egiten dugu, pelikulak jartzen ditugu...».

Adin guztietako herritarrekin harremana izatea «oso garrantzitsua» dela diote, «elkarlan batean gauzak

aurrera eramatea». Goikoetxeak dioenez, «horrelako lekuetan denok denongandik ikasten dugu, haur batetik hasi eta gaztetxea okupatu zeneko garaietako jendera arte. Pertsona bezala balore asko ikasteko balio duen leku alternatibo bat da Alegiako Gaztetxea, indarrean dagoena, eta nik uste dut herri mailan baloratu behar dela eta merezi duen gauza bat da».

Alegiako Gaztetxea ezagutu zuenean, «flipatu» egin zuela dio Leizak. «Estimu handia hartu nion ikusita zer mugimendu duen eta kanpora zenbat gauza eramaten dituen, nola sentitzen garen etortzen garen aldiro. Gaztetxean bertan kontzertua eman genuen eta esan dezaket eman dugun kontzertu berezietarikoa izan dela, bai jendearengatik, bai tratua-rengatik, eta lekuarengatik orokorrean».

Dokumentala egitearekin eta zabaltearekin batera, beste mezu bat ere eman nahi dute proiektu horrekin: «Gaztetxea alternatiba bezala ikusten den leku bat dela erakustea. Guk ekin-tza bat egin nahi badugu, badugu gure txokoa».

Orain azken lanak egitea falta zaie eta dokumentalaren aurkezpen egun hori antolatzea. «Hunkigarria» izango dela diote.

Iruratik Anoetara

Gu Anoetako Herri Ikastolako ikasleak gara, gure herria Irura bada ere. Irura, hain herri polita da... belardiak, etxeak, plazak, parkeak eta ikastola bat ere badago. Baina hauxe galdetuko duzue segur aski: zergatik gaude Anoetako Ikastolan ikasten? Anoetako ikastetxea ikusgarria, polita eta handia izan arren Iruran ez dagoelako DBH, beraz, etapa horretara pasa behar dugun ikasleak Tolosara, Anoetara edo Villabonara joaten gara. Iruratik gertuen dagoen herria Anoeta delako joaten gara gehienok hara, adibidez gu.

LH6-tik DBH-ra alde handia egon da eta ez bakarrik ikastolaz aldatu garelako, baizik eta irakasleak, ikaskideak, gelak, ekintzak, patioa eta ohiturak ere aldatu direlako. Orain gure esperientzia kontatuko dugu.

IRAILAK 7

Udara azkar pasa zen eta ikastola berri batera joateko momentua iritsi zitzaigun. Motxilak hartu eta Anoetarako bidean gindoazen goizeko 08:00etan. Lagun eta irakasle berriak, dena zen berria guretzat. Egun hartan geure burua aurkeztu eta besteena ere entzun genuen.

IRAILAK 10

Gure buruarekiko eta baita besteekiko ere konfiantza hartzeko dinamikak egin genituen. Ikasturtea nola joango zen ere esplikatu ziguten, eta gu garen bezala tratatu behar gaituztela esan ziguten, ez gutaz esaten dutenagatik. Hori dena gure tutore zoragarriak esan zigun. Oso atseginak egin zitzaizkigun egun haiek.

IRAILAK 11

Egun hartan Hernialdera joan ginen irteera bat egitera, dinamikez eta jolas ez gozatzeko. 08:00etan ikastolara etorri, guztiok elkarrekin gosalduta eta Hernialdera abiatu ginen. Goiza han pasa ondoren ikastolara jaitsi eta bazkaltzera joan ginen bakoitza bere etxera.



IRAILAK 12

Egun horretan jazarpenaren aurkako talde batean lan egiten duen bikote bat etorri zen gurekin hitz egitera. Gero jazarpenari buruzko antzerki bat egin zuten eta guretzat jazarpena zer den hausnartzen ibili ginen. Jazarpen kasuren bat gertatuz gero zer egin behar den ere azaldu ziguten. Ikaskideekin nola sentitzen garen galdetu ziguten eta geletan zein rol dauden aztertu genuen. Saioa amaitzeko, jazarpenaren aurkako espiral bat oparitu ziguten (mila esker etortzeagatik).

IRAILAK 13

Irailaren 13an hasi ginen lanean ikasgaiekin. Gelako ardurak banatu genituen, esate baterako, zakarrentzia nork aterako zuen, argiak zeinek piztu eta itzaliko zituen... Gelako ordezkariak ere aukeratu genituen. Beraien lana gelako ikaskide guztiak partaide sentitzea da, ikastolara gusturago etortzeko, ikastolara hobetzeko eta gure ideiak zabaltzeko.

IRAILAK 20

Etxetik atera eta ikastolara joatean zuzenean Besagainera joan ginen. «Go-

gorra» eta aldapatsua iruditu zitzaigun bidea baina azkenean iritsi ginen mendi haren tontorrera, hori bai, denak izerditsu. Goian arkeologo ugari zeuden lan eta lan eta han zebilen bat etorri zitzaigun gauza batzuk esplikatzera. Arkeologoak Antzinaroari buruz hitz egin zigun zehatz-mehatz eta oso azalpen interesgarriak eman zizkigun.

AZAROAK 29

Ez uste dena horrelakoa denik Anoetako Herri Ikastolan. Goian azaldu ditugunak lehen egunak izan ziren baina bi hilabete pasa ondoren dagoeneko egin ditugu 33 froga, 6 konpetentzia, luzeak, astunak, zailak... Hala ere, ohitu gara honezkero eta ez ikastea arraro eta guzti egiten zaigu batzuo, baina lan asko egiten dugun arren, oso ondo pasatzen ari gara gu behintzat. Eta ez ahaztu 11 egun hauetan Euskaraldia izan dela eta egunetik egunera euskaraz gozatzeko aukera gehiago ditugula. Ze poza!

**NAHIA ARRUABARRENA
ETA ADUR FERNANDEZ**
DBH1EKO IKASLEAK

Agenda



HANDITZEN DOAN ALTZOKO AZOKAN, 40 POSTU

III. Azoka izango da igandean 10:00etatik aurrera. Berrogei postu izango dira herriko plazan jarriko direnak. Herritarrek dozena bat postu jarriko dituzte, eta horietatik lau eskulanenak. Herriko eskolak ere bere txokoa izango du, eta biltzen duen dirua Saharara bidaratuko dute. Gazteek taberna jarriko dute, eta hainbat alegiarrek, berriz, arrakasta handia izaten duen talo postua. **JOSU ARTUTXA**

26

OSTIRALA ABENDUAK 07

AMASA-VILLABONA

ONDDO GAZTE ASANBLADAREN URTEURRENA

18:30. Askapena, Venezuelako brigadisten eskutik, hitzaldia, gaztetxean.

21:00. Gazteentzako film proiektzioa eta afaria, gaztetxean.

LARUNBATA ABENDUAK 08

AMASA-VILLABONA

ONDDO GAZTE ASANBLADAREN URTEURRENA

14:30. Gazte bazkaria, gaztetxean. Babarrun jatea. Txartelak 8 eurotan salgai RK, Apatx eta Irtzar tabernetan.

Ondoren. Bertso-triki poteoa.

23:30. Kendall Gaua. Starlus eta DJ Sorpresa, gaztetxean.

BERROBI

SAN ANDRES FESTAK

15:30. XXVII. Berrobiko Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketako Final Nagusiak jokatuko dira, pilotalekuan.

TOLOSA

MIKEL ALONSOREN AGUR OMENALDIA

16:30. Realeko jokalaria ohiak, Antiguoko eta lagunaren aurkako partida, Berazubiko estadiolan.

ZESTA PUNTA

11:30. Tolosako Ugarein Xistera Zirkuitoko Elolaren Oroimenezko Torneoko finalak jokatuko dira, Beotibar pilotalekuan.

IGANDEA ABENDUAK 09

ALTZO

III. AZOKA

10:00-14:00. Bertan ekoiztutako produktuak eta gonbidatuek

ekarritakoak ikusi eta erosteko aukera izango da, plazan. Produktu ugari izango dira postu ezberdinetan banatuta. Eguraldi eurtsua egokituz gero, frontoian izango da.

Jan eta edanerako aukera ere izango da bertaratuentzat

AMASA-VILLABONA

ANTZERKIA

17:00. *Mendi Tontorrean* haurrei zuzendutako antzezina da, euskaraz, Txalo produkzioen eskutik, Gurea antzokian. Sarrera: 5 euro.

TOLOSA

PILOTA

16:30. Beotibar pilotalekuan, VII. Ogi Berri Migel Soroa memorialeko partidak jokatuko dira.

ASTELEHENA ABENDUAK 10

ANOETA

DOKUMENTALA

19:00. *Mai da bai, eta ezetzik ez dago*



dokumentala ikusteko aukera izango da, Mikelasagasti auditoriumean. Maputxeen hizkuntzaren biziberritzea hizpide du.

Ondoren. Solasaldi bat egingo dute, Garabide Elkarteko Txema Abarrategirekin.

BERASTEGI

ELKARTASUN AZOKA

16:00-18:00. Abenduaren 14tik 16ra izango da Bigarren Eskuko Materialen azoka eta materiala biltzeko eguna izango da aparkaleku azpiko lokalean. Sobrean edo erabiltzen ez diren materialei etekina ateratzea izango da: Arropak, jostailuak, liburuak, altzariak... Ateratzen dirua Etiopiara bidaliko da.

ZIZURKIL

ERAKUSKETA INAUGURAZIOA

19:30. Katilu solidarioen proiektuari lotutako erakusketa antolatu da, Plazida Otaño liburutegiko Erakusgunean eta inaugurazio ekitaldia egingo da. Helburua kalitu solidarioen proiektuaren berri ematea da, bere ibilbidea azaltzea, eta beste elkartasun proiektu batzuk ere agerian uztea.

ERAKUSKETAK

TXOTXONGILO ANIMATUAK

Txotxongilo animatuak erakusketa. Lourdes Villagomez eta Coke Rioboo-k komisaroi-lanak egin dituzten erakusketa honetan zine, telebista, publizitate eta abarrean erabiltzen den stop motion animazioaren teknikaren begirada eta ibilbidea azaltzen da. 2019ko otsailaren 28a bitartean ikusgaidago.

Topicentroa, Tolosa.

ARTEKMO

Hemengo eta gaurko eskultoreak. Euskal Herri osoko 19 artisten erakusketa aurkezten du Azken Muga egitasmoak. Gaur, hilak 7, azken eguna izango da 17:30etik 20:30era.

Aranburu jauregia, Tolosa.

ZINEMA

AMARCORD

Ostirala (19:15 eta 21:45). Zine foruma. Jatorrizko bertsioan, gaztelarazko azpidatziekin.

Leidor, Tolosa.



EL CASCANUECES Y LOS CUATRO REINOS

Larunbata (17:00). Haur zinea.

Leidor, Tolosa.



DOGMAN

Larunbata (22:30).

Jatorrizko bertsioan, gaztelarazko azpidatziekin. Astelehena (21:00). Ikuslearen eguna. Jatorrizko bertsioan, gaztelarazko azpidatziekin.


Leidor, Tolosa.



¡A GANAR!

Igandea (17:00). Haur zinea.

Leidor, Tolosa.



LA SOCIEDAD LITERARIA Y EL PASTEL DE PIEL DE PATATA

Igandea (19:30 eta 22:00).

Leidor, Tolosa.



LA SOCIEDAD LITERARIA Y EL PASTEL DE PIEL DE PATATA

Igandea (19:30).

Gurea, Amasa-Villabona.



Agendaren arabera



IXIAR ALTUNA

*Abenduaren hirugarrena
Agendaren arabera
Astelehenean izan genuen
Ta hizkuntzari ze harrera
Eskola eta toki askotan
Ze ekitaldi zerrenda,
Baina Euskararen Eguna ere
Hitz eginez ospatzen da*



Doinua

Arratsaldeon
lehendabizitik

Pilotak bizi, aurkariak prest

Hitz egin nezakeen Euskaral-
diaz. Eman duenaz eta espe-
rientziaren balorazioaz. Hala
ere, bestelako gai bat dut bu-
ruan, nahiz eta hamaika eguneko epe-
an egin den lana borobila
eta kontzientzia pizteko
modua izan. Ohiturak al-
datu beharrean gara, hel-
buru hori baitzuen
erronka honek. Nik, or-
dea, ezin dut beste ba-
tzuek atera dezaketean
haina ondorio atera.

Azaroaren 23an jantzi
nuen txapa. Egun horre-
tan bertan hasi zen Es-
kuz Binakako Txapelketa Nagusia.
Euskaraldia eta pilota (hein batean
behintzat) joan daitezke noranzko be-
rean, baina horiek beste kontu batzuk
dira; ez bainaiz ariko Arretxetarren
eta Retegitarren hizkuntza ohiturez,
pilota partidetako narratzaileen erda-
rakadez edo pilotari erdaldunek eus-
karaz aritzeko egindako esfortzuez.
Ezta hizkuntzarekin zerikusirik ez
badu ere, aurreko igandean Bizkaia
pilotalekuan enpresa bereko bikoteak
aldageletan bereizteko hartutako era-
bakiari buruz. Ez gara lokatzetan sar-
tuko.


Kontuak kontu, Amezketan ge-
nuen lehen hitzordua. Hantxe etorri
zitzaidan agurtzera Jokin, aspaldiko
laguna, Ahobizi txapa jertsean zera-
mala. Gero, bera aritu zen bizi, parti-
da ederra jokatzu eta le-
hen puntua lortuz. Le-
hen puntua ere
astelehenean eskuratu
zuten Artolak eta Ma-
riezkurrenak. Inkognita
moduan izendatu ge-
nuen konbinaketa hau,
baina bikaina izan zen
egin zuten lana, erakus-
taldi ederra.



JOSU ARTUTXA
DORRNSORO
KAZETARIA

Bigarren asteburuan,
are zailagoak ziren bikote hauen par-
tidak. Baina, bai Altunak gaur zortzi,
baita Artolak igandean ere, sasoi be-
tean daudela erakutsi zuten. Bitik
bina puntu bientzat. Zorionak! Baita
euren bikoteei ere. Gutxi espero zu-
ten alegiarra lehen postuan; ni
behintzat pozten naiz. Amezketarra-
rena ez da nobedade handia ere.
Apustu egingo dut, bien arteko fina-
laren alde. Ea bada lau hilabeteetan
pilotak orain artean bezain bizi mu-
gitzeko aukera izaten duten biek,
baina benetan diot, aurkariak prest
egon daitezela.

**Bitik bina puntu
bientzat. Zorionak!
Baita euren bikoteei ere.
Gutxi espero zuten
alegiarra lehen postuan;
ni behintzat pozten naiz.
Amezketarrarena ez da
nobedade handia ere**



Hamabigarrenean aidanez

Euskaraldia hasi orduko, hamabigarren egunari begira jarri gintuen Amets Arzallusek: «Zentzua eta indarra hartuko du hamabigarrenean». Eta kanpainaren lelo bilakatu zen denbora gutxian.

Baina, esaldi hau Euskaraldia bera hankaz gora jartzeko moduko elkarrikeria baten parte zen: «Orain, mundu guztia dago euskararen alde, baita euskararen heriotza diseinatu eta praktikatu zutenak, eta haien oinordeko denak ere». Kursaalera itxiera ekitaldiko lehen lehen hutsik gertatzeko moduko

adierazpenak ziren, baina itzalean geratu dira.

Nahiago izan dugu irribarrez heldu erronkari, guztiei eskua, ahoa eta belarriak eskaini. Ados, akaso, egoerak horixe eskatzen du. Baina, euskaldun bezala ahalgunduz beharraz aritu gara egunotan eta, esan, nola ahalgunduz gaitzkeen kateak non ditugun eta nork lotu dizkigun ez badakigu. Nola indartu daitezkeen hizkuntza bat ahultzearen arrazoiei begiratu nahi ez badiegu. Esan, zergatik ukatu behar dio-

gun hizkuntzari duen pisu politikoa (politikoa diot, ez alderdikoia), iritsi garen lekura batzuen erabaki eta jazarpen politikoagatik heldu bagara.

Iparraldean Mundu Gerrek sortu zuten arrakalari, Hegoaldean Frankis-

moak eragindakoa gehitu ziztaion eta horri garapenaren inperioak jarri zion azken ginda. Hala, jazarpen linguistikoari, klasearena gehitu ziztaion. Galdetu, bestela, Tolosan bertan, zenbat hasi ziren gaztelaniaz hizketan euren baserritar jatorria ezkutatzeko edo kaletar izan eta baserritik zetozenengandik bereiz-

teko. Bigarren mailako kultur izaera horretatik atera ahal izateko, txingurri lana izan da euskalgintzarena. Horretatik, ezin ulerturik gabiltza, ezagutzak gora egin ahala, zergatik egin duen erabilerak behera. Bada, finean, «una, grande y libre» horrek bertan jarraitzen duelako, frankistei globalizazioaren «askatasun» kamuflatua gehituta.

Hizkuntzek komunitateak, kulturak eta hizkuntza horretako hitzunenak soilik diren komunikazio kodeak

sortzen dituzte, eta ze beldurra ematen duen horrek zuri-beltzeko mundu honetan! Egin ditzagun hizkuntzaren erabilera sustatzeko ariketa ahalik eta parte hartzaileenak, baina herri mugimenduetan gabiltzanoi dagokigu euskara komunikazio bide izatetik, tresna askatzaile ere bihurtzea. Ezin garelako aske izan hizkuntza eta kultura zapaltzaileetatik. Eta hasi moduan, Ametsen hitzekin amaituko dut: «Herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen».



**MADDI SARASOLA
EIZMENDI
BETAURREKO
BERDEEKIN**

Herri mugimenduetan gabiltzanoi dagokigu euskara komunikazio bide izatetik, tresna askatzaile ere bihurtzea. Ezin garelako aske izan hizkuntza eta kultura zapaltzaileetatik

EGURALDIA



OSTIRALA

Eguzkitsu hasiko da eguna baina orduak aurrera egin ahala kaxkartu egingo da giroa. Goizean giro eguzkitsua izango da. Goi-hodei batzuk salbu, eguzkia nagusituko da eta hegomendebaldeko haize biziarekin giro goxoa izango dugu. Tenperaturak 16-18 graduak harrapatuko ditu. Arratsaldeko lehen ordutik aurrera haizeak ipar-mendebaldeko ukitua hartuko du eta zeruan hodeiak nagusitzen hasiko dira, iluntze alderako lehen euri zaparradak iritsiz.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Kaxkarretik hasiko da eguna baina arratsaldean txukunduko du. Goizean eta eguerdira bitarte zerua hodeitsu agertuko da eta euri pixka bat egingo du. Euri zaparrada txikiak izango dira eta litro gutxi botako ditu. Eguerditik aurrera atertu eta arratsaldean ostarte batzuk zabalduko zaizkigu. Haizeak goizean mendebal/ipar-mendebaldeko ukitua izango du eta arratsaldean hegomendebaldetik finkatuko da. Tenperatura: 13-15 gradu.

IGANDEA

Giro kaxkarra. Goizealdean sartuko den fronte batek hodeitza handia eta euria ekarriko dizkigu. Euri zaparradak egun osoan izango dira. Mardulek hori bai, goizean. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du, egunaren lehen orduetan oso zakar gainera, nahiz azken orduetan indar pixka bat galduko duen. Erdi-mailako geruzetan aire hotzagoa sartuko da eta tenperatura behera, eguneko erdiko orduetan 11-13 gradutan errendituz.

OSTIRALA
07



IGANDEA
09



LARUNBATA
08



ASTELEHENA
10



IRAGARKI LABURRAK



LANESKAINTZA

Etxeko lanetarako. Etxeko lanak egiteko pertsona baten bila nabil. Interesatuek deitu mesedez telefono honetara: 688 888 207.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK



ABENDUAK 7, OSTIRALA

TOLOSA
Egunekoa. Olarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 670128.

ABENDUAK 8, LARUNBATA

TOLOSA
Egunekoa.
Etxebeste, J.M.
Gernikako Arbolen lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.

ABENDUAK 9, IGANDEA

TOLOSA
Egunekoa. Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

ABENDUAK 10, ASTELEHENA

IBARRA
Egunekoa.
Lejeune, L.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefonoa: 943 67 32 74.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.



ataria
Irratia
107.6 fm

www.ataria.eus

Berezi

NEURRI BEREZIAK

Gazte eta emakumeentzako moda

44-64
neurriak

www.berezitallasespeciales.com

Errementari kalea, 3 , Tolosa / Tel.: 943 674 965

berezitallasespeciales 



Gama altuko
2 mó graduatu
erreflexuen
aurkako
lenteekin

229€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



B.P.S. 375/1511.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com





Erabili zure Oria txartela, eta irabazi errege opila eta 100€ko erosketa bonua



**Erosketak: abenduaren 3tik
urtarrilaren 1era**
Zozketa: urtarrilak 2



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO